



# TXIRRITXOLA

13. ZENBAKIA 1995.EKO APIRILA BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

## BERTSO AFARIA BAKION

Otsailaren 24an bertsolari handi bi etori jakuzan bisitari; Jon Enbeita eta Sebastian Lizasok saio luze bezain ederra eskaini euskuen. Giro gozoan igaro gendun afalostea Txobarnen bildutakook. Horra hor gau hartako irudi batzuk eta, bertoko batzuren zaletasuna ikusita bota ebezan bi bertso.



### LIZASOK


Uste dudanez Bakiorako  
oraindikan nago garaiz  
baldin jendeak oniritzia  
badio aurpegi alaiz  
gaur bezelaxe zuen tartera  
ni etorri ninteke maiz  
Moises ere aurki dugu bertotan  
ni sarri etortzen banaiz.

### ENBEITAK

Ekin ta ekin ikasi behar  
hau bere zer erremedio  
geure bertsoak horretarako  
ez ete dabe balio?  
Baina Lizaso, Bakio honetan  
gure kontuak adio  
baldin bertotan hasten badira  
Moises eta Eusebio.

### AURKIBIDEA

- 2.- Bakioko euskera-egoerari buruzko elkarrizketak.
- 3.- Aratustekak. Galipot.
- 4.- KORRIKA 95.
- 6.- Angel Zelaietari elkarrizketa.
- 7.- Euskararenak. Ipuina.
- 8.- 7 erroreak. Lehiaketa...



# Bakioko euskera-egoerari buruzko elkarrizketak

**Oraingo honetan Euskara Batzordeak herrian mugitzen diren alderdiengana jo du, euskerari buruzko eritziak jasotzekotan. Luzatutako galderak hauek izan ziren:**

- 1.- ZELAN IKUSTEN DUZUE, PARTIDU MODUAN, EUSKERAREN EGOERA BAKION?
- 2.- ZELAKO MEDIOAK IPINIKO ZENITUZKETE EUSKERA ARLOA AURRERANTZA EDO GEHIAGOTZEN JOAN DADIN HERRIAN?
- 3.- UDALETXEARI BEGIRA, EUSKERA ZER MAILATAN DAGOELA USTE DUZUE UDAL-HARREMANETAN?
- 4.- EUSKERA ARLOAN ETA BEREZIKI EUSKERA BATZORDEAN EGINDAKO EKINTZAK ONURAGARRIAK DIRELA EUSKERAREKIKO USTE DUZUE?
- 5.- "TXIRRITXOLA" ALDIZKARIA EGOKITZAT JOTZEN DUZUE? ZERTAN HOBETU BEHARRA LEGOKE?

## BAKIOKO EUSKO ALDERDI JELTZALEA

- 1.- Ez ondo.
- 2.- Lehenengo eta behin egoera aztertu; gero egiten diran gauzak eta honen ondorenak, eta ondoren adituena aholkularitaz plangintza bat osatu.
- 3.- Ez dogu uste arlo horretan dagoenik akats handiena; ez da txarra hobetzen joan behar den arren, baina guztirako plangintza sakonago bat behar da eta alderdien arteko norgehiagokatik kanpo.
- 4.- Egiten dana gehien batean, zerbait da. Onena geure ustez da, jendea kezka baten inguruan biltzen dala; eta orain egin beharko dana, banan aztertu, ondorenak ebaluatu eta geure ustez, plangintza zabalago batean tartekatu.
- 5.- Bizitza honetan ez dago ezer hobetu ezin daitekenik. Geure ustez ez dago inor herri honetan txirritxola irakurtzeko gogo biziaz; hau da, astelehenetan kirola irakurtzeko gogoaz edo izaten garan lez. Hau lortu behar da ona dala esatera heltzeko. Horretarako, gaiak, erabiltzeko era, idazteko era, etabar hobetu beharko litzatekez. Azkenik esan behar dogu euskerea gorago esan dogun lez, alderdien arteko norgehiagotik atara behar dala; herri osoaren -abertzale zein ez abertzale- altxor kultural legez hartu behar dogula. Abertzaleok bihotzak eraginda, besteak geure kultura honen alde sartzen joanaz... Guztiok gurago genuke etapak arinago betetzea baina arin joateak ez dagiala arriskuan jarri helmugara heltzea. Dena den, apurka

apurka bagoaz pausak emoten eta uste dogu hurrengo urteotan gehitxoago emongo doguzala eta geure euskereak Bakion daukazan oin guztiak mugieragiteko gauza bagara edo asmatzen badogu eta plangintza on bat egin eta betetzen, hobetzen bagoaz, zeozer, aurreratzea izango da. Hortxe dago geure erronka arlo honetan.



## BAKIOKO HERRI BATASUNA

- 1.- Txarto, herri honetan ume txiki txikiak egiten dute euskera bakarrik.
- 2.- Euskera arloarekin errelazionatu-tako ekintzak laguntzen.
- 3.- Ona, edo nahiko ona.
- 4.- Onak bai, baina gauza gehiago egin ahal dira.
- 5.- Bai, ona da herriaren beharretara zuzentzen.

## BAKIOKO HERRI BATASUNA



## BAKIOKO EUSKO ALKARTASUNA

- 1.- Gehienak badakigun arren, ez da kalean erabiltzen.
- 2.- Denda, tabernetan, etab... ondo legoke prezioak, agurra eta "slogan" delakoren bat ipintzea, jendea euskaraz berba egitera gonbidatuz. Uste dogu bisitari askok ez duela Bakion euskaraz egiten, ez dakigula uste duelako. Interesgarria litzateke berebal etxeek, zein zubi, iturri, kale eta Bakioko zonalde guztiek, izena euskaraz edukitzea nabarmen eta agerian. Adibidez Olaskoetxeko zubia ("Casatablas" askorentzat), Makatzeko iturria (eta ez fuente de la capilla), Urizarreta (Eneperi beharrean), etab...
- 3.- Ona; hobetu dela uste dogu. Dena den eskatzen duen edonori emon behar jako harrera eta zerbitzua euskaraz eta egun hori ez da betetzen zenbaitetan.
- 4.- Euskararen alde egiten de edozer, onuragarria da.
- 5.- Interesgarria da. Ona litzateke Bakioko historia sarriago agertzea.



## Mundakako inauteriak: Aratuste

**Mundakako inauteriek badute euren historia nahiz eta hain famatuak ez izan. Entzunagoak dira Lantzeko inauteriak, Zuberoan maskarada, Tolosako inauteriak..., eta pentsatzen dogu horiek direla aipagarrienak, eta ez gara konturatzen hemen hurbil-hurbil ditugula inauteri famatuak, eta euren historia dutenak. Non? Mundakan.**

Mundakako inauteriak badute euren izen berezia: "ARATUSTE". Azkenengo inauterietako igandean ospatzen dira, baina Aratusteren jatorrizko eguna otsailaren 2a da, Kandelaria eguna.

Inauteri hauetan herriko jendeak mozorroruta hartzen du parte. Baina nola mozorrotzen dira?

Aratustetako pertsonaiak "marru"lak dira, eta euren jantzia Mundakan ikusten da soilik, gainera oso jantzi berezia da: alkondara eta praka zuriak, linozko soingainekoa, zuria ere, eta buruan oheburukoaren azala eramaten dute. Marruak, Mundakako gizonak izaten dira.

Baina hau ez da guztia, marruak jaia ere egiten dute eta. Jaia goizeko 12etan hasten da, marruak talde handi bat osatuz, herriko kaleetatik joaten diranean euren kitarra eta soinuekin abestiak kantatzen. Abesti hauek bereziak izaten dira, eurek asmatuak.

Herriko jendeak dirua eta opariak ematen dizkieta. Arratsaldean, marruen taldeari emakime talde bat gehitzen zaio. Mundakako emakumeak dira "lamia" mozorrotuta, jantzi beltzarekin, ile zuriarekin, eta aurpegia zuriz eta beltzez margotuta.

Eta honela arratsaldean, marruak eta lamiak Mundakako kaleetatik kalejira alai bat egiten dute.

Honela ospatzen dituzte urtero inauteriak Mundakan. Datorren urtean, zergatik ez goaz aratusteak ikusten?

## GALIPOT taldea aurrera!

Orain dela 4 hilabete atara dogu gure lehen maketa nahiko harrera ona jasoz, zenbait arazo distribuidorearekin euki ondoren.

Maketa hau Gonzalo Zubizarretaren estudioan (Plentzian) medio urriekin grabatu arren nahiko pozik geratu gara emaitzarekin.



Taldean baja bat euki dogu Asier gitarrajolea utzi gaituelarik, horrek eraberean talde berregituratze beharrezko bat bultzatu du geldiune bat gertatu delarik 2 hilabetez. Beraz, denbora pasatuko da GALIPOTen abesti berriak eta bide berria azaldu arte. Momentu honetan ensaio lokalaren arazoa daukagu, orainarteko ensaio lokala (Eskola zaharra) itxi egingo delako ez dagoelako egoera aproposan, horrela, eska nahi genizueke: Norbait prest egongo balitz lokal bat uzteko jarri daiten gurekin kontaktuan, ahal dogun moduan eskertuko bait genioke.

## 9. KORRIKA: GARAIZI - BAKIO - GASTEIZ

Zelan ez ba! Bakio bisitatu eban KORRIKAK, bere ikutua utziz eta mezua zabalduz, JALGI HADI EUSKARAZ! Horra, korrikalari batzuren irudiak Igor eta Jorgeren behar trebeari esker.



Korrikan bildutako diruak, euskaltegiak sustatu eta Nafarroakoak zein Iparraldekoak laguntzeko erabili ohi dira. Mila esker zelan edo halan lagundu dozen guztiei eta bereziki Bakioko Udala, Bakioko EA eta HB, Dantza Taldea, Abesbatza, Pilotatza Taldea, Futbol Taldea, Euskara Batzordea, Eskola eta Bodeguillako lagunei.

Gazteagoak, etorkizuna eskuan.



Bermeoko mugan lekukoa eskuratu.



Palari ez deitso hobeto oratuten.



San Pelaiotik behera, astiro.



Beherantz goaz eta, barre ugari.



Hemen Bakioko gazteak... Euskaraz?

# Elkarrizketa

**Idazle, irakasle, eta Euskara Batzordeak antolatzen duen ipuin lehiaketaren epaile... Elkarrizketa zabala eta literatura zaleentzat interesgarria eskaini euskuna; hau da Anjel Zelaieta. Anjel Zelaieta Gisasola; Mallabitarra, 1940. urtean, amak tabernan bertan erditu ebana, eguzki aldera begira dagoen gela batean. Umetatik seminarioan hazitakoa, bota ere egin nahi izan zuten eta orduan beroago segitu zuen, hantxe ikasketak burutuz. Apaiz graduak lortu ebazan eta handik txabola-eremu batera bota eben, naziolalismoaren birusa kenduko eutselakoan; baina bertan oso gustora ibili zan, hantxe ezagutu eban Aresti eta biek batera txabolismo gordina, egiazkoa.**

**Geroago ezkondu egin zan; hori bai, permiso guztiak eskuratuta, Imanol Berriatuak ezkondu zuen. Anjelek bi seme-alaba ere badaukaz; ezkon ostean espainiar filologia ikasketak burutu ebazan, eta geroztik Lauro ikastolan dihardu, sufrimenduan zein pozkarioan...**

## IDAZLE ALA IRAKURLE, ZER EGITEN DUZU GUSTORAGO?

Ba, lan orduen arauera, irakasle; ikasleei "beharra eragiten". Eta momentu honetan geure klaseetan nahikoa mugimendu dago literatura egiten; ikasten baino. Testu ugari sortu eta publikatu ere egiten dira bertsoz, zein prosaz, zein "teatroz"... ikastola barrurako, eta oso harrera ona dauke jendearen artean, oso gustora irakurtzen dira agertutako lanak, testuak, kritikak etab...

## ZELAN IKUSTEN DUZU EGUNGO EUSKAL LITERATURA?

Une honetan produkzio handia dago, bai liburugintzan, bai aldizkari etabarretan... Azkenaldion gehien interesatzen zaidan arloa, poesiagintza da, eta honetan oso lan politak sortu dira. Esate baterako Harkaitz Cano edo Amaia Iturbideren lanak.

## PROSAN, GEHIEN BAT B. ATXAGAREN IZENA DAUKAGU BURUAN. HORRENBESTEKO ALDEA DAGO BERA ETA ONDOKO EUSKAL IDAZLEEN ARTEAN?

Uste dut Atxagak badaukala maisutasun bat idazterakoan; eta bere merituz, bere izena altxatu duela goien gradora. Prosan gauza ugari produzitzen da; begitu esate baterako Egunkaria, egunero irtezen dena, eta badauka ezaugarri on bat; ikusten baita ez dutela bakarrik informatzeko idazten, baizik eta bistan da horko jendeak estiloa lantzen duela eta ezagutza bat daukala. Hor dago beraz kazetaritza-prosa. Hor daude ere fikzioa eta ez-fikziozko prosak. Atxaga maisu da fikziozko prosa honetan. Atxagak beti idazten du fikziopean, eta zerbait literatura bada, fikzioa da.

## ETA, ATXAGAREN ONDOTIK BADATOR INOR?

Bai, Atxagak eskola moduko bat eragin du, eta ondorioz badatoz prosista gehiago ere, nahiz eta poesian aurrerakuntza handiagoa somatzen dudun, prosan baino. Prosan oraindik ere hiztegiarekiko menpekotasuna handia da; hainbat jende uste du zenbat eta gramatika gatzagoa eta hiztegi aberatsagoa erabili, prosa hobea egiten duela; eta hori ez da

egia. Adibide bat ipintzearren, ba Andolin Eguzkitza aipatuko nuke, oso prosa barrokoa eta gramatika-zalea erabiltzen duena.

## BESTE IDAZLE BIREN IZENAK?

Bata Sagastizabal izan liteke, momentuan salmenta arrakastatsuak lortzen ari dena... Dena den jarraitzen dut pentsatzen prosaz ez dagoela aberatasun handirik ere. Ez dakit, Patxi Zabale-taren kasua datorkit burura, eta honek ere oso lan interesgarriak argitaratu ditu, baina pentsatzen dut historia nobelatua egiten duela gehiago, prosa hutsa baino. Uste dut oraindik ere fikzioak indar gutxi daukala gure prosan. Urain litzateke beste adibide bat, presondegi barrutik bi lan argitaratu dituen, baina honetan ere ideiek, pentsamenduek, berte barneko sentazioek daukate fikzioak baino askoz pisu gehiago.

## ETA POESIAN?

Ba, lehen aipatutakoez gain, hor daukagu Bakiorekin nahiko lotuta dagoen Juanma Madariaga, nahiz eta honen lanetan, aberatsak eta txukunak izateaz gain, "eskolaren" presio handia nabaria den. Eta aurrekoetan, Lauaxeta eta Lizardi oso kontuan hartzekoak dira. Baina, honatez gain badago beste atal bat, Euskal Herrian oso aberatsa dena, eta hau literatura hermitarrak osatzen duena da. Honetan ez diogu zorrik inongo herri-literaturari, azken ekarpena Amurizarena, bere Bizkaiko bertso anonimoekin... Lekuona eta Barandiaranen lanak edo Vitoriako Unibertsitateak argitaratutako "Baladak" liburua -Jon Juaristi, Lakarra eta beste batzuren-, edo B. Lertxundi, Laboa, Imanol Larzabalen aportazioak oso garrantzitsuak dira.

## ZER DERITZOZU BERTSOLARITZARI?

Ba honek ere oso osasun ona erakusten du momentu honetan; miresgarria da literatur mota honek bizi duen momentua; edozein egunetan Gipuzkoako edozein herrian edota Bizkaiko eta Nafarroako zenbaitetan, Bakion bertan ere jende mordoxka batzen baita, bertsoak entzun eta gozatzea oso lagunarte atseginean...



Halakorik ez dut uste Europa osoan ematen denik, hemengo proportzioetan behintzat. Bertso-saioetan literatura sortu egiten da, entzuleak hurbildu eta sarritan txartela ordaintzen dute, etab... Benetan adierazten du literatur modu honen osasuna.

## ZERI BURUZ IDAZTEN DU JENDEAK GEHIENBAT?

Suertez egun askatasun osoz idatz lezake jendeak geure eremuetan, baina gainera idazleak sarri kontutan hartzen du nahia, gogoia. Adibidetzat Goenkale ipiniko nuke; teledibistako produkzioa den arren hor badago zati bat literatura dena, aktoreek antzezten dutena hain zuzen, klasikoek literatura dramatizatu deitzen zutena. Horrek argi adierazten du publikoaren nahietara zuzenduta dagoela. Batzuek esaten dute hori literatura kaltegarria dela, ez dela egiazkoa, tele-satsa dela,... eta ez nago konforme, zeren eta errezeptoreak, hartzaileak, bere parte baitu literatur produkzioan; beste literatur produkzio batzutan - lirikoa...- parte hori txikiagoa bada ere. Horretan guztian badago borroka edo pultsu moduko bat produktore eta hartzailearen artean, eta uste dut guztia kontutan hartuta euskal literaturak osasun ona daukala.

## GABRIEL ARESTI ERE LAGUN IZAN ZENUEN.

Bai hala da; adiskide ginen zentzurik zabalenean eta pozgarria da niretzat hura eta harekiko harremana gogoratzea. Arestik oso lan garrantzitsua egin zuen euskal literaturagintzan eta "belaunaldi" bat ere sortu zuen; oso produkzio bariatua eta aberatsa utzi zigun, sormen eta indar handikoa. Arestik lortu zuen eta lortzen du irakurleak plazer estetikoak jasotzea. □

## ipuina: "Basa-putzuko, Arballo mendiko urgeldiko ireltxuak"

Burgoa mendiko gibelean Euskal Herriko beste toki askotan lez, baserritarrek euren zereginel burubelari ekin egiten eutseen. Honeen arteko bat IREBATZEA izenekoa zan. Ireak ebagi eta iremetetan batu ostein, burdiratu eta baserrira eroaten ebezan. Bertan, baserriko kortan, hain zuzen be, abereentzako azpigarriak (entzunlekuak) egiteko ireak erabiltzen ebezala. Honeri eginbeartneroni -azpiak iraurtea- eutsoen.

Behinola, Burgoa mendiko hegalean dagoan Kontxabale izeneko baserriko Permin eta Mikel anaiak Arbailo mendiko ingurura iretan joan ziran. Bertako irearteak, amalgabeak irudiela, itsasorainokoak ziran. Bai, irearte haundiak hareek, benetan!

Han emon eben, ba, anai blok arrasti osoa. Irebatzeari ekin eta ekin.

-Txo, Mikel, etxera joateko ordua dok.

-Egon haite egon apur baten, ba, gizona ba! Han dagozan iremetok batu eta etxera joango gozak erantzun eutson besteak.

Beharrean ekin eben barriro. Behar ta behar egin eta... blaustal Konturatu barik, Ermu baserriakera heldu ziran, burdia ireez beterik eukela. Hango etxe-ko jaunak, Txominek, etxaldeko soloetan beharrean egoala, ikusi ebazanean, hurreratu eitezain keinua egin eutsen. -Zer mutikok! Belu zabilze, belu! Erduze txakolin ona dastatzera, erduze -gedar egin eutsen Txominek.

Besteak, idibuztarria arinago joan eiten akulatu eta aurbeheren Ermu baserrirantza jaisten hasi ziran. Burdikada makala ire ez eroena!

-Edan egin mutillok. Bildur barik, gero! Gazteek gizon izateko edan egin behar dabe eta!

Edan? Hoba ez, dranga-dranga edan be. Ha zan edan-edatekoa!

-Txakolin gozoa, gero! Txakolin gozoa, gero!

Orduak etorri orduak joan, beluago, mozkorrigo. Noz edo noz joateko sasoi zala ebatzi eben.


Esan eta egin. Etxerako bidea hartu eben. Baina, etorri ziran lekutik joan beharrean, aldatz gogorra eta haundia zalako, Arbailo mendira Matxitxako alderditik eta handik Burgoa mendiko beheko akdetik etxera igotea ebatzi eben. Horretarako, Matxitxako luradarratik gora joan behar izaten eben.

Burdibidean aldatz gora, ba Arbailo

mendia igoten joiazan anai biak, alborik alhora. Ez zan makala aldean eroen mozkorra, ba! Ez, ez zan bape makala!

**Burgo ganean bada baldarra, ez da paltako popan zuldarra.**

Gau zuria zan, zerua ozkarbi, izartsu agiri jaken eta iretargi beteak bere biribil-



biribiltasunean argi motelez baztar gutzitik beteten ebazan.

Artean, gure mutilak, aldarerik onenagaz eta burua berobero eginda eukela, abestuzantzokari eragoioen. Idibuztarria, samar atzetik, asago etorran.

Albo-alboka, Arbailo mendian nahiko goiti dagoan urgeldira (zingirara) heldu ziran. Urgeldi hau ez zan haundi-haundia, baina bai, ostera, baltz-baltza, bere hondoa ikusteko erarik inork ez eukana.

Eretako indarrak, mutilenak, ez idienak, jakina, birreskuratzeko, lotualditxu bat egiteari ondo eritxen. Beste barik, urgeldiko ertzean, behearen gainean etzunda egoan mukur baten ondoan jesarri ziran eta mozkorraren mozkorraz, loak hartu ebazan. Lo zurruak hartu, izan be! Idiak, bien bitartean, txiri-txiri euren gana hurreratu ziran, ur edateko edo, asmoagaz. Halako baten, gauerdiz behera, uretatiko plisti-plastazko zarata haundiak gure mutilak non iratzartuten ebazan.

-Ene, bada! Permin, gure idiok, gure burdia eta iremetok!

-Ai ene! Oraintxe bai, ederra! -beste anaiak.

Idiak, burdia eta ireakaz batera, urgeldiaren barru-bamura, praka gorritz eta soineko orlegiz jantzitako, buztan eta adardun ziran iditxu adrea (gaueko iratxoak), maratz bestean Irribarretsu, sartzen ahaleginduten zan. Mutilak, zurtz eginda egozala eta ezelako zirkinik egite-

ko gauza ez zirala, ezin izaten eutsoen euren begiek ikusten ebenari sinistu. Idiak aurrerago, urak gorago. Hatan, iditxuen buruzagia izan eitekeanak abots zoilaz, baina entzuteko besteaz, behin ta barriz inotsen:

**Salokeria, ardurarik eza, lapiko bereko aihogatxa.**

**Idiak, burdia eta iretza,**

**non eta itsaldeko hatxan.**

Hau esanaz batera, idiak, burdia, ireak eta iditxuak urgeldian, berehalan hondoratu ziran. Mutilak, ikusitakoari sinistu ezinik, ondoezakdia etorri, behearen gainera jausi eta lo zurruak barriro hartu ebazan.

Hurrengo goizean, etxeok mutilak urgeldiaren ondoan loak hartuta aurkitu eta iratzartu egin ebazan. Mutilak etxera ez etozala ikusirik, goiznabarra baino lehen euren bila urten eben eta. Zer jazo jaken itaunari mutilak

ganorazko erantzunik emoteko gauza ez zirala irudianez, etxeok, eurek euren-tara, idiak eta burdiaren bila hasi ziran. Ez eben, baina, lorratzik be aurkitu. Jakina ezetz!

Auzoko batzuk urgeldiko jazokerea sinistuten hasi ziran artean, beste batzuk, ostera, honeei azkenoneei barre egiten eutseen.

Handik hiru egunera, Urkidi eta Gixistiko mutilak, ohi zan lez, Arribola izeneko Matxitxako ingurualdeko harritatzura bidezidorrean behera lapatan jaisten ziranean:

-Ai ene Marie! Zer dok hori?

Hantxe bertan, Arribola harritatzuko harritzabalaren gainean Idiak, burdia eta ire lorra, danak, ezer jazo izan ez balitz lez egozan. Idiak ebagi barri irudian bedarra mauka-mauka jaten eta ire lorra burdiaren gainean ondo be ondo atonduta.

Handik aurrera, mutilen ipuina egitatz hartu eben.

Harrezkero, urgeldi honen uretara jausi izan dan edozer edota edonor hirugarren egunean Arribola deritxon harritatzuko horretan agertu izan ei da.

**Hori holan izan bazan, sartu daitela kalabazan. Eta urten daitala Txatxamietako plazan.**

Iñaki MARTIARTU

# Euskararenak

## EUSKARA HOBEAN HOBE

### ERE BAI?... ERE?... BAITA ERE?

Zalantzan ibiltzen ei gara sarri juntagailu honeek erabilteko orduan, eta ondorioz era guztietako konbinaketak entzun ahal izaten doguz. Horra hor argibide batzuk, lagungarri izango jatzuezelakoan.



☛ ERE, bera bakarrik noiz? Bada, bigarren esaldiaren mamina, lehengoarengandik ezberdina denetan. Adb.: "Pedrok ondo egiten du euskaraz eta Lorek ERE ikasi beharko luke". "Ni Laukoztarra naiz, eta Iker ERE bertan jaioa da."

Horretaz gain, bigarren esaldia jakintzat emoten denean ere erabiltzen da. Adb.: "Zeuk ere jenio txarra daukazu." edo "Aurton ere jende ugari hurreratu da".

☛ ERE BAI... Sekula ez erabili esaldi hasieran ("~~ERE BAI~~ ikasi genuen..."). Ez eta ere, bi esaldien artean ("Txanpaina edan eta ERE BAI saltoka egin genuen.", "~~ERE BAI~~ beti esaldiaren azkenean jarri behar da. Adb.: "Pilotan irabazi zidan, eta kartetan ERE BAI.", "Gaur zinera joango naiz eta bihar ERE BAI".

☛ BAITA... ERE... Adb.: "Naranjak erosi ditut eta BAITA platano eder batzuk ERE.", "Ni banoa eta BAITA zu ERE"

## 7 ERROREAK



ZER ADIERAZTEN  
DU ESALDI  
HONEK?  
ARRAINA URETAN  
EGON OHI DEN  
BEXALAXE DAGO.

ZIORTZA

## LEHIAKETA MUNDIALA

### GREZIA

- 1.- Zeintzu izan ziren Grezia aurreko bi zibilizazioak?
- 2.- Zein mendeei k.a. dagozkie Greziako aro Arkaikoa?
- 3.- Zein dator aro Arkaikoaren ondoren, aro Helenistikoa ala aro Klasikoa?
- 4.- Zein idazle greziarra idatzi zituen "ILIADA" eta "ODISEA" liburuak garai haietan?
- 5.- Nola deitzen ziren "onenak" edo "bikainenak" izendatzen zituztenak beraien buruak? Eta "gutxi batzuen" gobernuari nola deitzen zitzaion?
- 6.- Nondik sortzen dira koloniak aro Arkaikoan?
- 7.- Ze mailetan zegoen banaturik Greziako demokrazia?
- 8.- Nola deitzen zitzaion Grezia klasikoan kanpotik heldutako pertsoniei?
- 9.- Nola deitzen zaio (k.a. 500-479) greziarrek persiarren kontra izan zuten gudari?
- 10.- Noraino heldu zen Alexandro Handiaren inperioa bizirik zegoenean?

(ERANTZUNAK UTZI KULTUR ETXEAN EDO UDALETXEAN)

### ASMAKILOA:

Lurretik igo nintzen  
zerura. Zerutik  
berriro lurreratu.  
Ez naiz Jainkoa.  
Baina Jainkoaren  
zai bezalaxe daude  
nere zai ere.

ZER NAIZ?

(euria)